

txoritxoari mokoka

KATE ZERUTIAARRAK

Amagoia Iban

Umore 'pasionala'

Gloria Sanz medikua Reusen (Tarragona) zuen kontsultara abiatu zen urtarilaren 18an. Bezperan, zeukaten harremana eteteko gogoia zuela esan ziola eta, bikotekidearekin seioan ibili omen zen. Atzo zortzi agertu zen Sanzen gorpu mailatua, zintzurra ito arte estututa, Bartzelonako Vallirana udalerriko paraje batean. Mutil-lagunak esan zuen non zegoen gorpu. Aitortu zuenez, «itsutua eta asaldatur» zegoen memento batean akabatu zuen Gloria Sanz. Espainiako Gobernuak Tarragonan duen ordezkari Angel Sa-

Poloniako kate katolikoa

Poloniako Lux Veritatis fundazio katolikoa satelite bidezko telebista kate bat abian jartzekoa da aurtentzen, komunismoak Polonian boterea galdu zuenetik daukan Radio Marija irratiarekin hasitako bidetik jarraitzeko. Programa erlijiosoak eta informazioa eskaintzea izango omen da kate berriaren helburua. Poloniako zenbait erakundek, baina, kezka hartu du albisteak, Radio Marijan ematen diren sermoiak eskuin muturreko mezuez gainezka daudela eta. Pelikula hori non edo non ikusia dugu lehendik, ezta?

gardoyk, gaur zortzi, hilketa «pasional» gisa aurkeztu zuen gertatutakoa. «Maiteminduen arteko eztabaida batetik» abiatu omen zen dena, eta hiltzaileari «eskuetatik ihes» egin omen zion amorrak. Galtzak gehiago betetzen omen ditu adierazpenok egin zituenetik. Larunbat gauean, berriz, esketx adierazgarria ikusi genuen Jose Luis Moreno-*Noche de fiesta* saioan: gizon bat, beste gizon batekin oheratu dela esan berri dion emazteari lepoa estutzen. Publikoa, algara batean. Zenbat eta gehiago estutu senarrak emaztearen lepoa, orduan eta barre gehiago jendeak. Horrela doakigu gero; eta lehen; eta orain... Kaskarrean fin, eta umore *pasional* batere gabe.

LABURAEAN

Irakeko gatazkarekin lotutako elkarriketak egingo dituzte T5en

Juan Pedro Valentin T5eko albistegietako buruak hainbat ordezkari politiko elkarriketatuko ditu datozen egunetan, Irakeko krisiaren inguruan hitz egin dezaten. Gaur, 21:00etan, IUko koordinatzaile nagusi Gaspar Llamazares elkarriketatuko du. Ostiralean, Mariano Raxoi Espainiako Gobernuak bozeramailearekin hitz egingo dute. Hilaren 19an CIUko Artur Masekin eta 20an PSOEko Jose Luis Rodriguez Zapaterorekin.

Telebista interaktiboa jarriko du martxan ITV kate britainiarra

Erresuma Batuko ITV kateak hitzarmen bat sinatu du BSkyB enpresarekin, saioetan aplikazio interaktiboak garatu ahal izateko. Lehenengo saio erabat interaktiboa larunbatean eman zuten; *Who wants to be a millionaire?* lehiaketa, hain zuzen. Aurki Txapeldunen Ligako informazioa eta *Coronation Street* sugetzarraren argumentua eskura izango ditu ikus-entzuleak telekomandoarekin.

T5 kateko 'El comisario' telesailaren seigarren denboraldiko atalak hasi dira grabatzen

Hiru aktore berri izango dira hemendik aurrera T5eko *El comisario* telesailan: Pilar Punzano, Manu Fullola eta Zutoia Alarcia. Seigarren denboraldiko atalak grabatzen hasi dira dagoeneko, akzio eta suspensez beteak. Ikerketa laborategiak protagonismo berezia izango duela iragarri dute. *El comisario*-k aurreko denboraldian %22,9ko pantaila kuota eta 3.748.000 ikus-entzule izan zituen, batez beste.

GURE IRRATIA. Urteko biltzar nagusia egin berri dute Uztaritzen



Joan den larunbatean egin zuten, Uztaritzen, Gure Irratiko biltzar nagusia.

Beti aitzina, baina zuhur

Gure Irratiak aurrera egin du iaz, baina egoera ekonomikoa ez da oso ona

Eneko Bidegain | UZTARITZEN

Gure Irratiaren urteko biltzar nagusia iragan zen joan den larunbatean, Uztaritzen. Irratia sendotu dela azaldu zuen Danielle Duhalde irrati lehendakariak. Batetik, Hazparneko estudioa sortu zen iaz. Horrekin batera bi irratsaio hasi zituzten handik, eskualde hartako egoera sozioekonomiko eta kulturala aipatzeko. Lapurdiko herrietako berrien inguruko sareaz ere kontent agertu zen.

Azken hilabeteetan indar berezi bat egin da berri sail nagusien inguruan, Irulegiko Irratia-

rekin eta Xiberoko Botzarekin batera. Hiru irratiak kazetarien arteko sarearekin, Euskal Herri osoko berrien lantzea dute helburu.

Gure Irratiak entzuleak ez ditu Lapurdin eta Baxenabarren zati batean bakarrik; Gipuzkoan ere gero eta entzule gehiago ditu. Horrez gain, mundu zabaleraren hedatzea lortu du, webguneari esker. 24.000 lagunek entzun dute irrati Internet bidez, Gure Irratiaren arabera.

Etorkizunari begira, «indartze fase» batean sartu nahi du Gure Irratiak. Egoera «hauskorr» dela aitortu zuten. Baliabi-

de ekonomikoek beti arazo dira Gure Irratian ere. Datozen bi urteetan «indartze ekonomikoa» bermatu nahi dute. «Etorkizuna lasaia izateko lagunduko duten diru iturriak atzemateak da» Gure Irratiaren «lehentasuna». Alabaina, azken bi urteetan, defizita «handitu» dela eman zuen aditzera Agus Hernan zuzendaria.

Entzuleei hobeki erantzuteko grina ere agertu zen biltzar nagusian. Alde horretatik, entzule talde bat sortu berri dute, irratiaren edukia buruz entzuleekin gogoetatzeko. Hedagailuen inguruko eztabaida bat iragan zen, bestalde. Azken urteetan itzalgune gehienak estali badituzte ere, zenbait gune gelditzen dira arras ongi estali gabe.

ETB1



Ahieko Uria, lehiakide berria.

Lehenengo bi kanporatuak eta lehiakide berri bat gaur 'Basetxea'-n

Erredakzioa | DONOSTIA

Bi duelo jokatu dira gaur gauean ETB1eko *Basetxea* lehiaketan (22:25ean). Ondorioz, lehenengo bi kanporatuak zein diren jakingo da, eta Ahieko Uria hernaniarra iritsiko da Izabako Kaxao bordara.

Garbitasunak lehenengo buruhaustek ekarriko dizkie *Basetxea*-ko lehiakideei eta tirabira batzuk egongo dira haien artean.

Hirugarren *Basetxea*-ko aurreneko dueloan Anibal Atxabal eta Jon Kerejeta ariko dira. Atxabalek lau boto negatibo jaso zituen joan den astean, eta horrek giroa zertxobait nahasi zuen. Barañaingo parte-hartzaileak behin eta berriz dio beste lehiakideek ez dutela ezagutzen eta basatitzat jo dutela.

Ahieko Uria lehiakide berria, bestalde, 22 urteko hernaniar alai bat da. Dutzarik gabe gaizki ibiliko dela dio hernaniarrak. Oso argi du lehenengo saria lortuz gero Argentina-ra joango dela.